

ataria

2020-03-20 • 1.210. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus

Asuncion Klinikatik fiskaltzarako bidea





AURKIBIDEA

Iritzia Ura Iturralde **3**

Elkarrizketa Eider Saragueta **4-7**

Erreportajea KMK2020 **8-9**

Asteko Gaia Asuncion Klinika,
salaketak tarteko **12-19**

Iritzia Julen Telleria **20**

Iritzia Arantzazu Lizartza **21**

Elkarrizketa Karlos Linazasoro **23-25**

Erreportajea Txondorgileak **26-29**



Azaleko irudia
Asier Imaz

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzen eta
lana eskatzen

3ikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.



Emakumeak asilo eta babes eske European



URA ITURRALDE
ARGAZKILARIA

Orain dela hilabete batzuk galdetu zidan Aram nire lagun irandarrak ea aukerarik ote zuen bere herrialdean bizi duen egoera ikusita Europara etortzea asilo eta babes eske. Emakume transexuala izanik, jasanezina egiten zaio bere gobernuak inposatzen dizkion arauak jarraitzea. Konbertsazioa amaitu ondoren zin egin nion galdetuko nuela eta ahalik eta azkarren erantzungo niola. Zenbait lagun eta kontaktuekin hitz egin eta albiste asko irakurri ondoren ohartu nintzen gero eta gehiago direla European babesa eskatzen duten emakumeak. Arrazoiak oso ugariak izan daitezke: gizakien salerosketa, sexu-esplotazioa, mutilazio genitala, nahitaezko ezkontzak, genero indarkeria...

Espainiar estatuan asiloa lortu duen hogeita bederatzireko emakume palestinar baten kasua datorkit gogora. Bi urte lehenago alde egin zuen bere jatorrizko herrialdetik beste arazo askoren artean familia buru zen bere aitak maite ez zuen gizon batekin ezkondu nahi zuelako. «Nik ez dut ezkondu nahi, ikasi egin nahi dut eta nire familiak ez du onartzen. Anaiek jipoitu egiten ninduten mutil batekin hizketan ikusten baninduten, lotsagarria zen beraientzat. Nire senideak oso tradizionalak dira eta sistema bera oso matxista».

Beste adibide garbi bat izan liteke Ekialde Hurbiletik iritsita, bere senarrak jipoitu egiten zuelako asiloa lortu duen hogeita hemezortzireko emakumea. Tratamendu psikologikoa jasotzen ari da gaur egun.

Aram, nire lagunak ordea ez du babesa jasotzeko aukerarik izango oraingoz. Asiloa lortzeko bere herrialdean polizia jarraika duela ziurtatu beharko luke eta bere bizia arriskuan dagoela. Honetaz gain eta European gelditzea lortuko balu, sekula ezingo luke berriro Iranera bueltatu gobernu aldaketa bat egon ezean.

«Nik ez dut horrela ihes egin nahi, ama oso gaixo daukat eta ez nuke berriro ikusiko, berak ezin baitu bidaiatu. Beste era batera saiatu beharko dut edo itxaron ea bizitzak berak zer dakarkidan», erantzun zidan Aramek triste. Nire lagunaren ametsa Italiara bidaiatzea da, zehazki Milanera, eta moda diseinua ikasten ari denez bertan gelditu eta bere lanagatik ospetsu bilakatu.

Jakin badakit Euskal Herrian bertan badagoela emakume irandar bat aktibismoa egiteagatik eta bere herrialdean polizia jarraika eduki izanagatik asiloa lor-

Aramena bakarrik ez, ezagutzen ditudan irandar ia gazte guztien ametsa da beste edozein herrialdetan aske bizitzea

tu duena. Gaur egun erderaz ikasten ari da eta bere amarekin elkartzeko da Iran ez den beste edozein herrialdetan, askotan Turkian, adibidez.

Aramena bakarrik ez, ezagutzen ditudan irandar ia gazte guztien ametsa da beste edozein herrialdetan aske bizitzea. Batek bakarrik lortu du helburua, Samik, gaur egun Thailandian bizi da. Ez dute erraza, turista bezala bidaiatzeko ere eragozpen asko dituzte, nik gonbidatuta ere ezingo lukete etorri.

Askotan iruditzen zait Europa idealizatuta dutela, hemengo bizitza ez dela beraiek uste duten bezain erraza, esplikatzeko saiatu arren beti erreplikatzeko diote gauza bera: «European gutxienez aske izango naiz».

«Euskara maite dute, baina ez dute erabiltzen; horren jakitun dira behintzat»

EIDER SARAGUETA

EHU-KO IKERLARIA

Bi urtez Bizkaiko D ereduko ikastetxe bateko ikasleei jarraipena egin die ikerlari ibartarrak, hizkuntzaren inguruko tesi bat egiteko. 400 orriinguruko liburu batean jaso ditu, xehetasun osoz, hizkuntzaren inguruan bildu dituenak.

Irati Saizar Artola Ibarra

Gazteen hizkuntza erabilera, identitatea eta hizkuntzen arteko jauziak aztertu ditu Eider Saragueta EHuko ikerlariak (Ibarra, 1989) bere tesian. *Translanguaging hezkuntza eleanitzean. Ikerketa etnografiko bat* izenburuarekin aurkeztu du bere lana.

Zer da zehazki aztertu duzuna tesi honetan?

Elkarri lotuta dauden hiru gai aztertu ditut: batetik, euskararen erabilera, bestetik, ikasleen identitatea, eta azkenik, gela barruan egiten dituzten hizkuntza erabilerak.

Zein helbururekin egin duzu?

Hainbat helburu izan ditu. Alde batetik, ikasleen ahotsa entzun eta gaiaren inguruko iritzia jaso dut. Izan ere, askotan ikerketa handiak egiten dira, baina, protagonisten ahotsak falta zaizkigu. Eta beste aldetik, beraien hizkuntza erabilera aztertu, ikertu eta horri buruzko datuak jaso nahi izan ditut.

Horretarako, Bizkaiko eskola batean aritu zara.

2014. urte inguruan, gure ikerketa taldeak proiektu edo esku-hartze bat martxan jartzea erabaki zuen. Horretarako, hainbat diru laguntza jaso genituen, eta horren ondorioz, deialdi zabal bat egin genien ikastetxeei. Bizkaiko herri bateko ikastetxe batek eman

zigun baiezkoa eta bi urtez bertan egon nintzen ikasleekin, esku-hartze horren jarraipena egiten.

Zein lagin erabili duzu ikerketarako?

10 eta 12 urte bitarteko ikasleekin egin nuen. Eskola horretan *Amaraberri* metodologia erabiltzen dute eta bi adinetako ikasleak elkartuta egoten dira gelan.

Eta irakasleek parte hartu dute ikerketan?

Esku-hartze bat egiterakoan, halabeharrez eta zorionez, irakasleen, zuzendaritza taldeen eta eskola komunitatearen laguntza ezinbestekoa da. Esku-hartzea zuzenean ikasleei zuzenduta zegoen, baina gelan irakasle bat egoten zen. Beraiekin harreman estua izan dut, etengabeko hartu-eman. Informazio asko eman didate.

Nola egin duzu esku-hartze hori?

Esku-hartze baten gakoetako bat, nire ustez, testuingurura egokitzea da, eta kasu honetan, eskolara. Gure proiektua eskolan martxan jarri baino lehen, hainbat bilera egin genituen eduki guztia egokitze-ko. Ondoren, esku-hartzean, hainbat eta hainbat ariketa egiten genituen ikasleekin. Horien artean, adibidez, testu bat hiru hizkuntza desberdinetan irakurri behar zuten, eta ondoren, galderak euskaraz eran-



tzun behar zituzten. Horrela, hizkuntzen arteko loturak eta harremanak ikusi ahal izan zituzten.

Euskaraz gain, hizkuntzen arteko jauziak ere landu dituzue.

Euskarako, gaztelaniako eta ingeleseko saioetarako prestatu genituen esku-hartzeak. Gaur egun ikasleak eleaniztunak dira, baina ulertu behar duguna da hizkuntza

guztietan ez dutela maila bera. Hizkuntza batean dauzkaten baliabideak, ordea, erabili ditzakete beste hizkuntzak ikasteko. Beraz, kasu batzuetan, ikasleek etxean jaso duten hizkuntza erabili dezakete beste hizkuntzak ikasteko.

Hizkuntza bat ikasterako garaian, beraz, beste hizkuntza batek lagun liezaioke.

Eleaniztunak garenak hiltun osoak gara, eta hizkuntza guztiak erabiltzeko aukera izan behar dugu. Gure kasuan, eskolan, hiru hizkuntzak indartzeko aukera daukagu. Horretarako, garrantzitsua da aurrez dauzkagun ezagutzak erabiltzea. Esaterako, euskararen ezagutza erabiltzea, gaztelania, ingelese edo etorkizunean ikasiko duten hizkuntzaren bat ikasterako orduan.

Hizkuntzatik harago, identitateei begira ere jarri zara.

Hizkuntzak eta identitatearen artean lotura estua dagoela ikusi dut. Ikusi nahi nuen une horretan zer-nolako identitatea erakusten zuten ikasleek. Azken batean, identitatea malgua da, pertsonala eta bakarra da, baina ertz asko ditu, eta identitate hori hain zabala izanda, argazki bat atera nahi nuen eta ikusi nahi nuen ea ikasle horiek zer erausten zuten. Kasu horretan, hainbat

«Erabileran mugak jartzen dizkiegu, baina askotan malgutasunak laguntzen du»

ikaslek erakutsi dute euskaldunak sentitzen direla, baina erabilerari erreparatzen badiogu, ez daukatela joerarik euskara erabiltzeko. Hor, bestelako agertoki bat sortzen da, eta garrantzitsua da horri begiratzea. **Horrelako tesietan interesgarrienak emaitzak eta ondorioak izango dira.**

Esku-hartzean zehar ikasleek hainbat ariketa egin behar izan zituzten. Argitu behar da ikasle horiek, esaterako, irakasleari zuzentzeko euskara erabiltzen zutela, baina modu ez formalean, beste edozer komentatzeko, erdara erabiltzen zutela. Esku-hartzearen ondorioz, ordea, ikusi dut euskara ez den beste hizkuntzaren bateko ariketa bat egiterakoan, zati bat euskaraz egin behar bazuten, beraien artean sortzen ziren elkarrizketa guztiak euskaraz izaten zirela.

Ikasleei batzuetan erabileran mugak jartzen dizkiegu, hizkuntzak oso modu zurrunean mugatzen saiatzen gara, baina askotan malgutasunak lagundu egiten du. Egia da gure esku-hartzea planifikatua izan dela eta helburu zehatz batzuk zituela; ezin da edozein momentutan edozein hizkuntza hitz egin. Hori ere argi utzi genuen, euskara delako gure hizkuntza eta gure ardatza.

Euskarari dagokionez zein ondorio atera dituzu?

Ikasleek euskararekiko dituzten sentimenduak oso baikorrak direla ikusi dugu, oso positiboak; euskara maite dute, gustuko dute, baina beraiek argi aitortzen dute ez dutela erabiltzen. Lagunekin hitz egiterakoan batzuetan egiten dutela diote, baina ez dela ohikoena, ez dutela ohiturarik. Interesgarriena da jakitea kontziente direla horretaz. Eta oso argi dute gainera euskararen etorkizunaren gakoa erabileran dagoela.

Egoerak edota inguruak bultzatzen ditu ez erabiltzera?

Edonori gertatzen zaion gauza da. Denda batera sartu eta lehen hitza erdaraz egiten badiote, bigarren dendan ere hala egiten badiote, eta arreta zerbitzu-koak ere horrela egiten badio, litekeena da laugarren elkarrizketan, ziurrenik etsipenez, erdaraz egitea. Ikasle hauek beraien herrian zer dagoen badakite. Eta euskal kontzientzia dugunok ere badakigu zein den egoera. Gertatzen dena da nekagarria dela. Ikasle hauen kasuan, adinez hain gazteak izanda, jakitun dira egoera zein den, eta horretara egokitzen dira.

Behin tesi hau eginda, euskara zein egoeratan ikusten duzu?

Gaur egun, nire ustez, eskolak izugarrizko lana egiten ari dira. D eredua duela 30 urte inguru jarri zen martxan, eta ikusi dugu haur asko eta asko euskaldundu direla. Zoritxarrez, ordea, horrek ez dakar erabileran bultzada handirik. Eskolak bakarrik ezin du guztia egin, eta hori irakasleek ere oso argi dute. Hainbat instituzio, eragile eta erakunde daude tartean, eta guztien elkarlana beharrezkoa da. Uste dut adibide egokiak direla Euskaraldia bezalako egitasmoak.

Izan ere, zuk eskola batekoa aztertu duzu, baina ikasle horiek ikastetxetik ateratakoan bizitza gehiago dute.

Ikasle horiek hainbat hizkuntza erabiltzen dituzte, eta ez euskara eta gaztelania soilik. Askok, etxean beste hizkuntza bat edo bi desberdin dituzte. Eta eskolara joaten direnean, hiru hizkuntza erakusten dira. Konturatzea kosta egiten zaigu, baina, gure herrietan hizkuntza asko eta asko daude. Ikerketa egin



nuen herrian, esaterako, 100 hizkuntza inguru hitz egiten dira. Carme Junyent hizkuntzalariak duela gutxi *Argia* astekarian egindako elkarrizketan esan zuen eleaniztasuna dela euskara indartuko duena. Bat nator berarekin.

Ikerketan zehar zu ere horretaz jabetu zara.


Bai, hizkuntzak elkar osagarriak izan daitezke. Ikasle batek etxean hizkuntza gutxitu bat badu, berari ere lagungarri zaio jakitea euskara debekatua egon zela, hizkuntza gutxitua izan zela. Hor, enpatia sortzen da.

Hizkuntza kontzientzia garatzen da, beraz.

Zentzu batean, hainbat ariketen bidez ikasleak hizkuntzaren inguruko kontzientzia hori izatea, eta batez ere horretaz hausnartzea izan dugu helburu.

Beste ondorioz atera duzu ikerketan?

Inplikazio moduan esango nuke Euskal Herrian hain-



DOKTORETZA TESIA

Izenburua: *Translanguaging hezkuntza-eleanitzean. Ikerketa etnografiko bat.*

Egilea: Eider Saragueta Garrido.

Zuzendaria: Jasone Cenoz Iragui.

Orriak: 418.

Hizkuntza: Euskara.

bat eta hainbat egoera desberdin daudela. Ez da berdina Bilboko auzo batean dagoen egoera, Donibane Garazin aurkitu dezakeguna, edo Lizartzan ikus dezakeguna. Uste dut interesgarria izango litzatekeela horrelako beste lan batzuk egitea eta ikustea besteetan zein emaitza lortu diren.

Tesitik zure ibilbidera joz, nolatan iritsi zara lan hau egitera?

Unibertsitatean Magisteritzako ikasketak egin nituen. Ondoren, Gizarte eta Kultura Antropologia ikasi nuen Donostian, eta horren ostean, Eleaniztasuna eta Hezkuntza masterra egin nuen. Momentu batez, nire ikasketak zintzilik ikusten nituen, baina masterraren ondotik aukera sortu zitzaidan tesia egiteko. Jasone Zenoz izan da lan honen zuzendaria; unibertsitateko katedraduna da, eta berak esan zidan lan hau egiten hasteko aproposa izan zitekeela nire profila. 2014-2015 ikasturtean, Eusko Jaurlaritzak ateratzen duen doktore-aurreko beka bat eskatu nuen eta zorionez eman egin zidaten, beraz, aukera izan nuen zuzenean proiektuan sartzeko.

Eta egun, unibertsitatearen bueltan jarraitzen duzu.

Gaur egun unibertsitatean egiten dut lan, DREAM -Donostia Research group on Education and Multilingualism- ikerketa taldearekin. Aukera izan dut bertan geratu eta jarraitzeko, eta orain lan honen ildo bereko beste proiektu batzuetan sartuta gaude. Oso pozik eta gustura nago.

Euskara ardatz hartuta aritu zara lanean. Baze-nuen horrelako ardura bat edo hizkuntzekiko?

Euskal hiztunak garenok askotan ateratzen dugun gaia da euskararena, kezka badugulako. Erakundeei ere kezka sortzen zaie, azken batean, Soziolinguistika Klusterrak eta Eusko Jaurlaritzak egin dituzten hainbat ikerketetan ikusi baitugu egoera zein den. Orokorrean, euskal hiztunok badugu kezka euskarren erabileraren inguruan.

Tesia bukatuta, 400 orri inguruko liburu bat duzu eskuarte.

Bai, zehazki 418 orriko tesia egin dut. Oso zabala da, sakoneko ikerketa bat izan baita, informazio, adibide eta datu asko dituena. Ikasleen ahotsek ñabar-dura asko edukitzen dituzte, eta guztiak bildu nahi izan ditut. Bi urteko zuzeneko behaketaren emaitza izan da.



Kilometroen eredu berria

Amasa-Villabona-Zizurkilgo Zubimusu ikastolak antolatuko du urriaren 4ko jaia. Bien bitartean ekimen asko izango da eta bat Tolosaldean egingo den Milimetroak jaia izango da; 'Mundu ko lore' lelopean, kulturen arteko inklusioa sustatuko da, eta horretarako eskualdeko sei ikastolak elkarlanean ariko dira.

Azken lau urtetan hausnarketa prozesu batean murgilduta egon dira Gipuzkoako Ikastolak. Hausnarketa horren ondorio izan da, Kilometroak jaiaren birsortzea, eredu berri bat jarraituz. Gaizka Ezeiza Kilometroak 2020ko Zubimusu Ikastolako koordinatzaileak zehaztu duenez, «prozesu baten amaieran gaude, eta hemendik aurrera beste bati hasiera emateko prest eta gogotsu» daude Gipuzkoako Ikastolak, «Kilometroak jaia ez baita amaitzen ari, indarberritzen baizik».

Hala, Gipuzkoako ikastola guztien jaia urriaren 4an izango da aurten, Amasa-Villabona eta Zizurkil, bertako Zubimusu ikastolaren eskutik.

Ezbairik gabe, «jai parte hartzaileak» izango direla nabarmendu du Nekane Artola Euskal Herriko Ikastolen artezkaritza kontseiluko eta Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakariak, bi ardatz izango dituztenak: «Batetik, lurraldeko ikastola guztien parte hartzea bermatuko duen Ikastolak harrobi kulturala egitasmoak landuko ditugu; eta, bestetik, Ikastola pla-

zara dinamika, Euskal Herriko hainbat eragilerekin batera antolatutako ekintzen bidez».

Berritze fasean

Urtetik urtera, Kilometroak jaiak tinko eutsi dio gune ludikoak euskaratik eta euskaraz egiteko konpromisoari, euskal jendartea euskaldunduz, herri honen zerbitzura-ko lan eginez. Baina Nerea Zumeaga Zubimusu ikastolako kudeatzaileak zehaztu duenez, «Kilometroak berritze fase batean murgilduta dago, eta bere proiektua herri-onurarako ere antolatzen da: herritik sortua eta herritarrei eskainia. Horregatik, helburu hauek beteko dituen egitasmoak ere martxan jarri ditugu».

Pello Mari Otaño ikerketa beka da horren adibide. Mintzola eta Zizurkilgo Teodoro Hernandorena elkarrekin elkarlanean, aurtengo Kilometroak dinamika ikerketarako beka bat eskaini nahi du. Bertso-laritzarekin lotura izan eta garaikidea ere baden gai bat ikertzea du helburu, bertso-laritza eta emakumea Aiztondo bailan, esaterako. Apirilaren 2ra arteko

epea dago lanak aurkezteko -informazio gehiago www.kilometroak.eus helbidean-.

Zumeagak argitu duenez, *Euskal Herria ezagutu nahi gurekin?* proiektua ere martxan jarriko da aurtengo Kilometroak jaiaren bueltan. «Gure mugez gainera etorritako pertsonak gurean kokatzen ari dira, eta uste osoa dugu egoera hori aberasgarria eta emankorra dela; bai etorritako pertsonentzat, bai gure komunitatearentzat. Izan ere, aniztasuna edozein jendarterentzat ezaugarri aberasgarria da».

Bizilagun berriei harrera egitea da proiektu honen helburua. «Harrera gure komunitatean, harrera gure kulturari, harrera gure hizkuntzan». Horregatik, *Euskal Herria ezagutu nahi gurekin?* egitasmoak dinamika praktikoa bati erantzun dio. Horretarako, hiru txango antolatuko dira, garai ezberdinetan eta Euskal Herriko toki ezberdinetara. Txango horiek elkar ezagutzeko eta harremanetarako tresna izango dira, harrobi kulturala indartzeko tresna. Ekintza hau Tolosaldeko ikastola guztien artean antolatuko da.

Ezin da ahaztu Kilometroak jai bat dela, eta dibertitzeko moduari lotutako zenbait ohitura eta jarrera ere oso barneratuta daude, batez ere kontsumoarekin lotutako jarrerak. Horren inguruan ere hausnartu dute ikastolek eta Ana Santamaria Zubimusu ikastolako zuzendariak argitu duenez, «Zubimusun, Gipuzkoako zein gainerako herrialdeetako ikastoletan eta Ikastolen Elkartearen garbi daukagu pertsonen arteko harremana dela kalitatezko esperientziak izateko landu beharreko ezaugarri nagusia. Horregatik, gazteekin bestelako lanketa didaktikoa bat egin behar dela iruditzen zaigu».

Ekin, jolas eta jai

Kilometroak Eguna urriko lehenengo igandearekin antolatzen jarraituko bada ere, Gipuzkoako herri guztietara eraman nahi da jaiak. Beñat Ezeiza Kilometroak jaiaren barruko *Ekin jolas* jai batzordeko buruak zehaztu duenez, «iaz Zubimusu ikastolatik antolatu genuen Milimetroak jaiari segida emanez, Milimetroak jaiak izango dira aurrerantzean Kilometroak

egitasmoaren beste ardatz nagusietako bat». Aurtengo hiru Milimetroak festa egingo dira: Tolosaldeko Milimetroak, *Mundu ko lore* lelopean, kultura arteko inklusioa sustatuz; Oarsoaldeko Milimetroak, Naziotasuna eta Euskal Herriak behar duen hezkuntza-sistema aldarrikatuz; eta Debagoienako Milimetroak, Kooperatibismoa eta auzolana balioan jarritz.

Milimetroak egitasmoarekin batera, *Euskara jolas* dinamika ere jarriko dira martxan aurtengo. «Jolasa gauza askotarako bide eraginkorra da, harremanak errazten ditu, emozioak puri-purian kitzikatzen ditu, inklusioa ahalbideratzen du, eta tematika bati garrantzia emateko aukera eskaintzen du. Horregatik, jolas-eremu horretara erakarri nahi ditugu DBHko gazteak». Urtean zehar hainbat topaketatan garatzen joango da, eta Kilometroak egunean, Gipuzkoako ikastola guztien artean azken topaketa handia egingo da.

Milimetroak Tolosaldean

Tolosaldean egingo da aurtengo lehen Milimetroak jaiak. *Mundu ko lore* lelopean, eta eskualdeko sei ikastolak elkarlanean ariko dira: Anoeta, Inmakulada, Laskorain, Irura, Uzturpe eta Zubimusu.

Ikastola bakoitzak banakako ekintzak egingo badiitu ere, beste hainbat elkarrekin eta herritarrei irekiak izango dira. Adibidez, Amets Arzallusek eta Ibrahim Baldek *Miñan* lanari buruz, Anoetan ariko dira. Horrez gain, liburuaren bi egileak sei ikastoletara joango dira, ikasleekin batera lanketa egiteko. Lip Dup bat grabatuko da Amasa-Villabonan eta Zizurkilan, Tolosaldeko ikastolen parte hartzearekin. *Euskara jolas* proiektuak ere izango du lekua. Gainera, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren emanaldia izango da Tolosan, eta *Euskal Herria ezagutu nahi gurekin?* egitasmoaren barruan egun osoa txangoa egingo da Elizondo, Bozate eta Amaiurrera (Nafarroa).

Ezeizak zehaztu bezala, «argi geratzen da, beraz, Kilometroak jaiak ez duela etenik, eta aurtengo leloak dioen moduan, *Korri, Punpa eta Ttak* egiten jarraitzen dugu Gipuzkoako Ikastolak».

Hemen *eta* online

iragarki
laburrak
.eus



 iragarki
laburrak
.eus



E. FLEISCHMANN
SUKALDARIA

Otarrainxka gaileta kurruskariak



Ahuakate kremarentzat, xehatu tipuleta eta egosi hamar minutuz limoi zukuarekin. Zuritu ahuakatea, zatitu eta birrindu dena krema bat lortu arte. Gatza bota.

Antxoa olio-ozpinarentzat, birrindu antxoak ozpinarekin batera irabiagailuarekin eta olio batatzen joan pixkanaka loditzen joan dadin. Ondoren, ura gehitu eta ongi nahastu.

Ziape olio-ozpinarentzat, nahastu osagai guztiak eta birrindu irabiagailuarekin.

Otarrainxka gailetak egiteko, moztu *brick* pasta zirkuluetan, oliba olioarekin margotu eta lore jangarriak ezarri gainean. Birrindu otarrainxkak osagai guztiekin batera eta bete gailetak. Estali beste pasta zirkulu batekin.

Ganba zukuarentzat, gorritu buruak zartaginean oliba olioarekin, ondoren piper hauts gozoa gehitu eta urez estali. Egosi 30 minutuz. Ondoren iragazi. Zerbitzatu baino lehen arto almidoia gehitu hotzean eta ongi nahastu.

Ganba hautsa egiteko, lehortu buruak labean 12 orduan 50 gradutan eta birrindu.

Amaitzeko, frijitu gailetak eta lagundu ahuakate kremarekin. Gehitu antxoa olio-ozpina, ganba zukua eta ganba hautsa.

OSAGIAK

AHUAKATE KREMA

Ahuakatea
Tipuleta
Limoi zukua
Gatza

ANTXOA OZPIN-OLIOA

Oliba olio
Sagar ozpina
Gazitutako antxoak
Ura

ZIAPE OZPIN-OLIA

Oliba olio
Sagar ozpina
Dijon-go ziapea
Gatza
Piper hautsa

OTARRAINXKA GAILETA

Brick pasta
Zuritutako otarraixkak
Perrins saltsa
Xarlota
Brandy-a
Tipulina
Limoi birrindua
Espellete-eko piper hautsa
Gatza
Ura

GANBA ZUKUA

Otarrainxka buruak
Oliba olio
Piper hauts gozoa
Arto almidoi modifikatua
Gatza

GANBA HAUTSA

Otarrainxka buruak



Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusiarengana joan zirenean bezala, TOLOSALDEKO ATARIA-ra txostenekin, epaitegie-tako sententziekin eta bestelako dokumen-tuekin etorri dira; baina guztien gaintik, euren esperientziekin.

«EZ NUEN KONPLIZE SENTITU NAHI»

Asier Imaz

Fiskal nagusiarengana elkarrekin joan ziren Asuncion Klinikako bi langile ohi, 2019ko ekainaren 12an. Biak medikuak, espezialista titulua homologaturik duten medikuak. Bata traumatologoa eta bestea hematologoa. Biak TOLOSALDEKO ATARIA-rekin elkartu dira, hirugarren mediku espezialista bat alboan dutela. Hau ere Asuncion Klinikako langile ohiak.

Lehen biek honela gogoratzen dute iazko ekainaren 12ko hitzorduaren hasiera: «Asuncion Klinika ikertzen hasteko bi modu daude, esan zigun Carmen Adan Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusiak: ustezko delituren bat egotea edo salaketa asko pilatzea». Gipuzkoako fiskaltza orain ikertzen ari den ustezko intrusismo delitua ez dute azken ikerketa izatea nahi, «arazoa zabalagoa delako; eskualde oso baten osasun arreta zerbitzuaz ari gara».

Aurrerantzean ere salaketa gehiago izango direlakoan daude bi medi-

«Intrusismo delitua baino arazoa zabalagoa da; eskualde oso baten osasun arreta zerbitzuaz ari gara»

kuak. Horretarako deialdia zabaldu diete Tolosaldeko erabiltzaileei, klinikako langileei edo izan direnei, eta erakunde nahiz mugimendu desberdinetako kideei: «Edozein irregularitasun edo beste edozer sumatuz gero, jarri salaketa Gipuzkoako Sendagileen Elkargoan». Bide hori zabalik dagoela uste dute. Hori frogatzeko, euren bizitakoa eta sufritutakoa kontatu dute.

Ametsetako lana, ezta?

2018ko urtarrilean, Jesus Gomez Montoya Asuncion Klinikako presidente exekutiboak bere bulegora deitu zuen klinikak zuen hematologo bakarra. Bilera amaitzean, bulegotik zuzenean etxera joan zen mediku espezialista. Gehiago ez zen Asuncion Klinikara itzuli. 16 urte zeramatzan bertan lanean.

Amaiera horren hasiera 2013an kokatzen du medikuak, bost urte lehenago: «Barrutik gauzak aldatzen



saiatu nintzen. Gabeziak ikusten nituen nire espezialitatean. Ondorioz, zuzendaritzara joaten hasi nintzen hobekuntza horien proposamenekin. Gabeziak hobetzeko eskatuz lau urte pasa nituen, 2017ko abendura bitarte. Inoiz ez ninduten kontuan hartu».

Proposamen horiek lan baldintzetatik hasi eta programa informatikoetaraino zabaltzen ziren. Lan baldintzetan beste hematologo baten beharra azaltzen da eskarien artean. Beste ospitaleen pare jartzeko, berriz, Odolbide edota Sintrom-en inguruko programak aipatzen ditu mediku espezialistak.

Lehenengo atala argitzeko, ondorengo gogoratzen du hematologoak: «Nik ez nuen ulertzen oporrak hartzen nituenean nola ez zuten beste hematologo bat jartzen. Eskualde ospitaleetan bi, edo Zumarragakoa-ren kasu, hiru zeuden. Niretzat hori osasun arretan gabezia bat zen. Nire lan baldintzetan ere eragiten zuen, ezin nituelako oporrak lasai hartu. 16

«Gabeziak hobetzeko eskatuz lau urte pasa nituen. Inoiz ez ninduten kontuan hartu»

urte horietan ez ditut inoiz hilabete osorako hartu. Gaixoen egutegia egokitu behar izaten nuen opor egunen aurretik eta ondoren, eta ez zuen ematen. Zuzendaritzara joaten nintzenean eskaera horrekin, ez kezkatzeko esaten zidaten: 'Zerbait gertatzen baldin bada Donostiara bidaliko ditugu, eta gainera, arduraduna zuzendaritza da, ez zu, ez ito horrekin'. Baina hematologiako gaixoak kronikoak dira, bi astez behin odol transfusioa egin behar izaten zaie zenbaiti. Ez kezkatzeko esaten zidaten, baina nola ez

kezkatu? Medikue bezala, gaixoen arduradun sentitzen nintzen».

Medikuntzako Kode Deontologikoak markatzen zuena besterik ez zuela egin dio Asuncion Klinikako langile ohiak. «Zerbait ondo ez dagoela ikusten baldin baduzu, aurrena zentroko zuzendaritzara jo behar duzu. Ondoren, sendagileen elkar-gora eta hortik, dagokion osasun arduradunarengana, beste bide batzuk hartu aurretik. Eta nik urte guzti



horietan urrats horiek jarraitu besterik ez nituen egin».

Zuzendaritzarekin saiatu ondoren, beraz, Gipuzkoa-ko Sendagileen Elkargoko abokatuarekin hitz egin zuen hematologoak. «Idatzi bat egiten lagundu zidan. Artatzen nituen gaixoak gero eta gehiago zirela jarri genuen bertan. Zenbakiak atera nituen. Ia ez nekien nola eskatu beste mediku bat. Txandak egingo genituen, zerbitzu hobea eskainiko genuen..., baina bakar-bakarrik nengoen».




Berririo klinikako zuzendaritzan aurkeztu zuen idatzia, edo kasu honetan, zehatzago esanda, «zuzendaritzako kide batzuei» eman zien. Idatzia mugitzeko eskatu zien. Nahi zuten tokira eramateko baina arazoa konpontzeko; hematologia zerbi-

«Ez kezkatzeko esaten zidaten, baina nola ez kezkatu? Medik bezala, gaixoen arduradun sentitzen nintzen»

tzuak aldaketa behar zuela klinika horretan. «Zerbitzuan defizit bat zegoela ikustea nahi nuen, eta hori konpontzeko eskatu nien». Ondorengoa ere esan omen zien zuzendaritzako kide horiei: «Idatzi hau Jesus Montoyak ikusten baldin badu arazoak izango ditut. Eta ez dut nahi ez inork buila egiterik ezta inore-

kin arazorik izaterik». Hilabeteak pasa ziren eta ez zen erantzunik iritsi, «gauza horiek geldo joaten zirela eta abar esaten zidaten».

Orduan, hematologia medikuak hurrengo urratsa ematea erabaki zuen: Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratura (ESI-OSI) joatea. «Esaten nuena ere ez zidaten sinesten. Sintrom-en programa eza-gutu ere ez zuten egiten. Are gehiago, kontsulta pasatzen nuela



ere ez zekiten. Ez zekiten ezer nitaz», dio hematologoak.

Eskualde bateko ESLak zonalde horretako anbulatorio guztien eta erreferentziazko ospitalearen arteko koordinazio lanak egiten ditu. Publikoa da, hau da, Osakidetzaari lotua.

Idatzi horrek 2017 amaierako sarrera erregistroa du Tolosaldeko ESI-an. Sartu aurretik, ordea, horrelakoak entzun behar izan omen zituen: «Ziur zaude egin behar duzunaz? Badakizu non sartzen ari zaren?». Nolabaiteko aholku horiek jasoagatik, aurrera jarraitzea erabaki zuen medikuak, eta idatzia Jon Etxeberria Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde ordezkariari bidali zitzaion.

Egun gutxira bilera batera deitu zuten hematologoak. Biler hori, ordea, Jesus Gomez Montoya Asuncion Klinikako presidente exekutiboak deitu zuen, bere bulegoan. 2018ko urtarrila zen. Bertan esandakoen xehetasun guztiak fiskal nagusiaren esku daude, baina hasiera honela izan zela dio Asuncion Klini-

kako mediku ohiak: «Pasa, hematologia San Luis bat baino garbiago utzi behar dugu eta». Hematologoaren esanetan Montoyak idatzia eskuetan zuen. Nork bidali zion? «Ez dakit, baina egun gutxiko kontua izan zenez, bi aukera bakarrik etortzen zaizkit burura. Egin zuenak zergatik egin zuen hori? Ez dakit».

Bilera amaitu ondoren atetik atera zen hematologoak. Zuzenean etxera joan zen. Familia medikuari deitu eta baja eman zion: «'Klinika horretara ez zara gehiago itzuliko, zaude lasai', esan zidan. Asteburuak libre nituen lan bat nuen, jai egunak, oporrak, nire soldata, kontratu mugagabea... dena zoragarria. Ametsetako lana pentsatuko duzu, ezta?».

Eta hor gurutzatzen dira gure bideak, dio aldamentetik Asuncion Klinikako traumatologo ohiak.

Espezialistak alde egiten hasi ziren

Tolosan bizi den traumatologoak Asuncion Klinikari 2013an hasi zen lanean. 2017ko abenduan, familia medikuarenera joan zen: «Ezin dut gehiago jasan». Bi hilabeteko baja eman zion. Apirilean itzuli zen lanera. Hilabete bertan pasa ondoren, ez zen gehiago itzuli Asuncion Klinikara.

2013an Iruñean ari zen lanean, bere jaioterriko klinikatik lan eskaintza egin ziotenean. «Dena oso polita saltzen dizute hasieran. Bizi osoa tolosarra izanik banekien fama txarra zuela, 'baina, ez da horrenbeste izango' esan nion neure buruari. Jarraian ikusiko duzun bezala, beti izan naiz tuntun samarra».

Kontratua sinatu eta Asuncion Klinikako traumatologia zerbitzuan hasi zen orduan lanean, urtean 65.000 euroko soldata gordina irabaziz, guardiak barne. «Zergatik ematen dudatu datu hori? Jaun horrek prentsan gezurra esaten duelako Asuncioneko langileek gordinen 75.000 eurotik 100.000 eurora bitarte irabazten dutela dioenean. Batzuk bai, batzuk irabazten dute...».

Kontratua sinatu eta hilabetera lehen lan gatazkak hasi zirela dio mediku espezialistak: «Osakidetza krisian sartu zen, eta zurrumurruek zabaltzen hasi ziren. Horien arabera, Asuncion Klinikari garai hartako hitzarmenetik %7 jaitsiko zitzaiola esaten zen. Diru kontuez ari gara. Orduan zer egin zuen berak, langi-


leei soldata jaitsi, Osakidetzak diru gutxiago emango ziolakoan. Erizainak bat eginda zeudenez aurre egin zioten, eta irabazi egin zuten, kausa justifikatua ez zelako».

Kontratua sinatu eta hilabetera, beraz, soldata murritzeten saiakera hori ezagutu zuela dio traumatologoak. Gero, hilabeteak pasa ziren eta «ondo». Egun batean, ordea, Tolosako Azokan zegoela telefono dei bat jaso zuen: «Ea guardian nengoen galdetu ondoren, Donostiako El Pilar ospitalera joan behar nuela esan zidan. Nola? Ni Asuncioneko langilea nintzela erantzun nion, erratu egingo zela. Segidan, klinikako traumatologia buruari deitu nion. Lasai egoteko, ezer ez zela, ahazteko esan zidan honek. Baina, noski, nik ez nuen ahaztu». Astelehenean lanera joan zenean berriro gaia ateratzen zion arduradunari, eta honek erantzun bera eman zion: «Ahazteko». Ahaztu ez zirenak El Pilarrekoak izan ziren, hilabete batzuetara berriro deitu baitzioten tolosarrari, «haurrekin ikastetxean nengoela».

Egoera horren aurrean abokatuarengana joatea erabaki zuen traumatologoak. «Kontratua erakusteko esan zidan. Hitzarmena Inviza SA-rekin zegoela ikusi genuen. 'Eta non daude klausulak?', galdetu zidan. Nik kontratua hori zela esan nion. El Pilar-era gerturatu ere ez egiteko esan zidan, hura Inviza ez zelako. Orduan sutan jarri eta zuzendaritzara joan nintzen. Ea zer gertatzen zen galdetu nion Agustin Agirreri. Asuncionen lanean hasterakoan guardiak bietan egin behar zirela, Montoyak futbol federazioarekin ez dakit zer sinatu zuela eta abar kontatu zizkidan». Traumatologo tolosarrak bera lanean klinikari baka- rrik hasi zela erantzun zion, eta aurka-koa inork ez ziola lehenago azaldu. Gauzak horrela baldin baziren negoziatu egin beharko zela, «baina, bietatik aldi berean deituz gero zer gertatuko litzatekeen galdetu nion. Hori ez dela inoiz gertatzen esan zidan, baina, bai gertatu zen».

Horren ondoren berriro lasaitasuna


«Erizainak bat eginda zeudenez aurre egin zioten, eta irabazi egin zuten»



etorri zela dio tolosarrak. «Abokatuak esan zidan ezer ez sinatzeko, eta nik horrela egin nuen. Hori bai, klausulak eskatzen hasi nintzen, oraindik sinatzeko nengoela eta ikusi egin nahi nituela». Eskatu eta eskatu ibili ondoren, bi urtera jaso zituela dio traumatologoak. «Bat-batean hor ikusi nuen Invizak ez ninduela kontratatu, Asistencia Medica Tolosa SL-k bai- zik. Montoyak sortutako beste

enpresa batek. Dirudienez medikuak hor zituen sartuta. Abokatuarengana joan eta hori inolaz ere ez sinatzeko esan zidan, txeki zuri bat sinatzea zela. Hori sinatuz gero gurekin nahi zuena egingo zuela».

Gurekin ere berdina egin zuen, dio Asuncion Klinikako hirugarren langile ohiak. «Gure kontratuan zera azaltzen zen: une horretan zitu- en zentroetan lan egiteko eta



Traumatologo tolosarrak epaitegian jarritako bost salaketak irabazi ditu. **A. IMAZ**

baita etorkizunean izan zenezakeenetan ere». «Pentsa», dio traumatologoak: «Etorkizunean Eibarren irekitzen du zentro bat, eta hara bidaltzen zaitu zuk txintik esateko eskubiderik gabe. Txapel batekin hiru buru tapatu nahi zituen. Eta noski, lan bakarra ordaindu. Nik bilera batean esan nion Montoyari, medikuak baino mertzenarioak nahi zituela. Bileratik bidali ninduen. Ni baldintza horietan lan egiteko ez nengoen prest, eta ez naiz diruaz ari. Ni Asuncion Klinikara joan nintzela lanera esan nion, eta berak horrela ez zela esaten baldin bazidan, agur eta ondo segi. Baina orduan berak gure beharra zuen, espezialista titulatuak ginelako eta hitzarmena sinatu zuelako Osakidetzarekin, baldintza hori betebeharrekoa zela jasotzen zuen hitzarmenak».

Hor, tartean, gertaera esanguratsu bat izan zen. El Pilar ospitalea kiebrara joan zen, itxi egin behar izan zuen Jesus Gomez Montoyak. Komunikabideek honelako titularrak atera zituzten: «El Pilar Klinikak ate-

ak itxi ditu Osakidetzatik zetozkion gaixoen kopurua hondoratzean». Horrek zein ondorio izan zuen Asuncion Klinikari? «Montoya Donostiatik Tolosara etorri zen. Klinikako zerbitzu buru batek esaten zuen bezala, urrezko arrautzen oilora. Ordura artekoa hankaz gora jartzen hasi zen eta handik eta hemendik dena estutzen. Dena aldatu zen», dio traumatologoak.

Lehengoaz gain, beraz, arazoak handitzen joan zirela dio tolosarrak. «Lankide ohiak lehen esan duen bezala, gure espezialitatean ere azpiegitura arazoak zeuden. X izpien aparatua horren adibide garbia zen. Horrez gain, guardiak 20:00etatik aurrera bakarrik ordaintzen zituztela ikusi genuen. Orduan zer gertatzen zen 15:00etatik 20:00etarako tartean? Izan ere, gure lanaldia 15:00etan bukatzen zen. Ordu horietan operatzera igo behar izaten ginenean, dohain egiten genuela konturatu ginen».

Lan gatazkekin bost aldiz joan zen traumatologoa epaitegietara, eta bost auziak irabazi zituen. «Gero, Jon Etxeberria Gipuzkoako Lurralde ordezkariak, 2019ko abenduan, langileei erantzun ziena irakurtzeko, 'enpresak adierazten du zorrotz betetzen dituela

indarrean dagoen hitzarmeneko lan-baldintzak'», dio tolosarrak. «Lurralde ordezkartzaren idatzi hori ere argitara atera beharko da noizbait, ebakuntza-gelako itsuten kontua bezala», gaineratuz.

Lan baldintzek, makineria berrien eskariak eta informazio faltak bat egin zutenean, egoera erabat lehertu zela dio traumatologoak: «Montoyak uste zuen guk klausulak sinaturik genituela. Hori horrela ez zela jakin zuenean haserre bizian jarri zen Agustin Agirre eta traumatologia buruarekin. Horrenbesteko tentsioa zegoen, mediku espezializatuak alde egiten hasi zirela. 2016ko abenduan bat, 2017ko maiatzean bestea, irailean eta azaroan bi, eta azkena, tuntun hau, 2018ko martxoan». Traumatologia zerbitzutik aparte, beste hainbat medikuk ere Asuncion Klinika utzi zuten garai hartan.

Hor izan genuen elkarren berri, dio aldamenetik hematologoak.

«Fiskaltza bakarrik geratzen zaizue»

Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusiaren aurrrera joateko arrazoi bat baino gehiago zituzten, eta bata bestearekin loturik zegoen. Aurrena, Osakidetza zerrrendekin hasi ziren, eta hori argitu zutenean, Asuncion Klinika jartzen zuen karpeta entregatu zioten Carmen Adani, EAEko fiskal nagusiari.

«Egoera jasangaitza zenez Asuncion Klinikari, Osakidetza zerrrendetan izena eman nuen. Traumatologiako buruari ere erakutsi nion nola egin behar zuen. Nire ezustekoa orduan etorri zen, berari niri baino lehen deitu ziotenean. Lan esperientziaren atalean hainbat puntu zituen, eta gu biok zero. Nola zitekeen hori? Nik banekien berak Osakidetza ez zuela lanik egin, ez behintzat horrenbeste puntu lortzeko adina. Orduan argi ikusi genuen, Asuncioneakoak kontatu zizkieten», dio traumatologoak. Klinika pribatuan lan egiten dutenei sare publikoan lan esperien-

«Fiskal nagusiari beste zerbait ere banuela esan nion, azken urte guzti hauetan pilatu nuen informazioa»




tzia ez zaie kontatzen, ez da behintzat puntuetan islatzen.

Han eta hemen galdezka ibili ziren puntu horien jatorria lortu nahian. «Alde guztietan gauza bera erantzuten ziguten: ondo zeudela. Orduan, ELAko abo-

katuak azken aukera fiskalarengana joatea zela esan zigun. Guk deitu egin genion, eta hitzordua jarri zigun. Gauza bat da gu bezalako bi medikuri adarra jotzea, baina ausartuko al dira fiskal nagusiarekin?». Osakidetza, beraz, oraingoan fiskalaren galderari erantzun behar izan zion. «Eta zer erantzun zion? Ondo zeudela».

Bi medikuak eta fiskala bera burugogor jarri ziren, ordea. Puntu horiek zituen medikuaren bizitza laborala



eskatu zion Carmen Adanek Osakidetzari, eta bigarrengo saiakera horretan, bai, akatsa agerian geratu zela dio traumatologo tolosarrak: «Oker ez banago, 11 puntu gehiago zituen». Albiste gazi-gozoa izan zen. Traumatologoak sare publikoan zegokion postua lortu zuen, baina hematologoa lan esperientzia arloan punturik gabe geratu zen, Asuncioneoek ez zutela kontaktzen agerian geratu baitzen.

Lehen arrazoiaren ondoren bigarrena etorri zen: Asuncion Klinika. Hematologoak aurkeztu zuen, baina biak elkarrekin zeuden: «Fiskal nagusiari beste zerbait ere banuela esan nion, azken urte guzti hauetan pilatu nuen informazioa. Hartuko zuela esan zidan. Karpeta hura bere eskuetan uztea ez zen hain erraza izan. Bost segundoko kontua izan zen esku aldaketa, baina amaiezinak egin zitzaizkidan. Bane-kien hori egin ondoren, dena aldatuko zela. Tolosal-

deko herritarrek beste eskualdeetako herritarren zerbitzu bera izatea besterik ez nuen nahi. Ezer ez banu egingo, ezer ez banu esango, konplize sentituko nintzateke».

Karpetako dokumentuekin batera, fiskal nagusiari euren esperientzia kontatu zioten Asuncion Klinikako bi langile ohiek. Komunikabideetan agertu dena, eta ez dena. Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusiak Gipuzkoako fiskaltzaren esku utzi zuen informazioa, eta honek, Asuncion Klinika iker-tzen hastea erabaki zuen, ustezko intrusismo delituagatik.

Bi medikuek argi utzi nahi izan dute ustezko intrusismo delituaren berri Gipuzkoako fiskaltzaren eskutik izan dutela. Gustura daude, «zerbait mugitzen hasi delako», baina jarraipena izatea espero dute: «Azkenean, klinikako langileek salatu berri duten bezala egoera oso larria delako». «Nire amak beti esaten du: ondo dabilenari pasa lekiok, baina gaizki dabilenari pasa egingo zaio».



JULEN TELLERIA
HIZTUNA

Ausartu egingo naiz

Beldurra daukat. Ez orain eta hemen (bakarrik), beldurra daukat betidanik eta egoera askotan. Beldurra daukat lurak nire azpian dardara egiten duenean. Beldurra daukat besteek nirekiko zein iritzi ote duten pentsatzen jar-tzen naizenean. Beldurra daukat harremanean, betiko izango ote den imajinatzean. Beldurra daukat hipoteka batean sartzerakoan. Beldurra kontrol batean geratzen

nautenean. Beldurra itsasoan igeri egiteari. Beldurra maskulinitateari. Beldurra inauterietan eguraldi txarrari. Beldurra gauetan ohera sartu eta gauzak pentsatzen hasteari. Beldurra, eta handia, ondokoak senti dezakeen beldurrari. Aitatasunari. Onartua ez izateari. Minbiziari. Eta, begira zer diren gauzak, beldurra oraintxe zu aspertzeari.

Beldurra, aizue. Etxean lasai ederrean siesta gozoa egin nahi eta aldameneko bizilaguna bere altzarien kokapena aldatzen hastean nola, inork gonbidatu gabe etortzen den parasito desatsegina. Ez dakit nor zaren (edo bai), baina zuk ere badaukazu. Beste gauza batzuei akaso, beste intentsitate batean beharbada, baina denok dakigu zein sentsazioz ari garen. Erabat irrazionala den zerbait, arrazoiaren eta logikaren gainetik, hezurren azpiraino sartzen zaizuna. Eta esan diezazukete lasai egoteko. Eta errepika diezazukete ez dela ezer gertatzen. Eta eskatu diezazUTZI BAKEAN! Nire beldurra da eta niri dagokit hau kudeatzea. Ze hortxe dago abantaila ere; gauza bat eta bakarra dago munduan zure beldurrari irabaz diezaiokeena: zu zeu.

Has gaitezen onartzetik. Ze, kontuz, hankartean daukadan honek ez dit uzten zuen denon aurrean beldurti agertzen. Mesedez. Sekula ezeri beldurrik izan ez dionak ez daki bizitzea zer den. Eta sufrimendu oro arinagoa izaten denez konpartitua bada, ez izan dudarik albokoari aitortzen: bai, *akojonatuta* nago. Lerro batzuk gorago arrazoia ere aipatu dut. Koherentzia. Izan ere, beldurrak badu halako efektu eferbeszente bat ere; gaur asko daukazu, bihar ere bai, baina etzi gutxiago, eta hurrengoan apur bat gutxiago, eta ez dut esango desagertuko denik, baina pixkana joango zaio arrazoimena gailentzen eta baretuko da normal bizi ahal izateraino.

Beraz, eta hemen inongo irakaspenik ateratzeko batere pretentsiorik gabe, beldurra duzun hurrengoan hartu arnasa, bota, irakurri berriz ere zutabe hau eta jokatu zentzuz, denok baikaude zurekin. Eta eskumiñak koronabirusari.

Beldurra. Eta handia, ondokoak senti dezakeen beldurrari. Aitatasunari. Onartua ez izateari. Minbiziari.



**ARANTZAZU
LIZARTZA
SAIZAR
HERRITARRA**

Eklipsea

Eklipsatzea beste ortzeko gorpuzki bat tartekatzearen ondorioz gertatzen den astro baten desagertze oso nahiz ez-oso omen da. Hala dio, beti ere, egongelako

apalean hautsak harturik dagoen *Elhuyar* hiztegi lodikoteak. Metafora bikaina deritzot azken asteetan hedabideetan jazo dena era poetikoan definitzeko.

Urruti heldu da Koronabirusaren birulentzia; izan ere, kutsatu ditu komunikabideak ere. Telebistak, beharbada, ez zituen eskuak behar bezala garbituko; Txinan izan berri den kide batekin egin zuten

prekarietatea eta greba-deialdiak, errefuxiatuei Europak ezarritako hesiak, Zaldibarren lurperatutako bi gorpuak, *Zaporeak* proiektuari Grezian egindako eraso eta baita bururatzen ez zaizkidan beste zenbait berri gordin ere.

Tarte horretan, indarkeria matxistak eraildako emakumeen inguruko albisteek oraindik inkubazioaldian jarraitzen dutela dirudi; adierazteko zain. Izurri zaharra dugu indarkeria matxistarena eta bere hedapena eusteko zailtasunei dagokionez, zeresanik ez. Aurten, momentuz, Espainiar estatuan, 24 emakume erail ditu (bi, hemen, etxean).

Finean, maltzurra da *generobirusa*, eta honen aurka ere ez dugu immunizaziorik. Eta, zin dagizuet

Koronabirusak mundu mediatikoa eta gizartea aztoratu lege, hemen jarraituko dut feminizidioek herria berrogeialdian sartu arte: tarteko gorpuzki hori desegin eta argitzeko zain, borrokan.

topo irrati-uhinek pasa den asteen; idatzizko prentsak, ordea, ezezaguna du kutsatze modua. Kontuak kontu, hirurak eman dute positibo artatu dituzten osasun zentroetan egindako proban.

Ordu *esttrak* eskaini zaizkio gaiari, gisa horretan, hedatze-katea moztea lortuko balitz bezala. Sentsazionalismorik batere ez; ezta izua ereiteko helbururik ere. Xede bat guztiaren gainetik: herria informatua edukitzea.

Paralisi mediatiko-sozial horren barruan, egunak, asteak,... bizitza bera ere aurrera doa. Nahiz eta ez adierazi, bestelako pandemiak egon badaude: lan

2021erako ez dutela germen hau prebenitzeko txer-torik aterako. Ezta aurrerago ere... Baina, tira, izan gaitezen errealistak, garrantzitsuagoa da super-merkatutako apalak hutsik geratzen ari direla eza-gutzea.

Koronabirusak mundu mediatikoa eta gizartea aztoratu lege, hemen jarraituko dut feminizidioek herria berrogeialdian sartu arte: tarteko gorpuzki hori desegin eta argitzeko zain, borrokan. Eta, jakin, ez naizela argi printza soilekin konformatuko.

Ah! ATARIA-n hasi berria naizenez... urte askotarako, irakurle! Besarkada aseptiko bat!




OIHANA IGUARAN
HARITUZEKO KIDEA

Zer egiteko gai garen

Doinua Lurraren pean

Lurraren pean, horma artean
etxekeon, etxearen
neurriak hartuz egon beharrak
ikusarazten du garden:
osasungintza publiko baten
premia dago nabarmen.
Gizarte gisa erakusteko
aukera bat da, dena den
zer egiteko gai garen eta
zer izateko prest gauden.



KARLOS LINAZASORO
POETA

Hi bakarrik falta haiz munduan

Hi bakarrik falta haiz munduan,
zeruko eta lurreko,
eta nire alboan bostetan,
bularrez dena izan dadin barru-barrutik oso,
aberri baten musika eta ekuatorea,
hi, kuttun, eta beste inor ez.
Zer dela eta zer dela orduan haiz
asmakizun baten elurra
eta ez haiz inoiz amaiera zorioneko
baten argazkia edo musua,
horixe soilik falta badin munduak
oilagor guztiak dantzan jartzeko
eta ni hiri so betiko gelditzeko
eta eskuetako erreka zuriak izarretan blai?





«IRAKURLEA EGOERA EZEROSOETAN JARRI DUT»

KARLOS LINAZASORO

IDAZLEA

'Hik ez dakik zer den beldurra' narrazio bilduma kaleratu du Erein argitaletxearekin Karlos Linazasoro tolosarrak. «Nobelaren tiraniaz» kritiko azaldu da.

Jon Miranda - Naiara Roldan de Aranguiz

Beti dago zerekin ikaratua, zerekin nazkatua, bada zerbait gure garunean berezkoa gaitz egitera bultzatzen gaituena, iluna eta barbaroa. Kontrolaezina, une jakin batean gain hartzen diguna. Horrela pasa zaie Karlos Linazasororen (Tolosa, 1962) *Hik ez dakik zer den beldurra* liburuan jasotako narrazioetako protagonistei. Ia denek egin dute izugarrikeriaren bat, batzuetan inkontzienteki desiratuta eta besteetan kontzienteki bilatuta.

Eta denok barruan munstro bat eramango bagenu? Eta denok min egiteko kapaz izango bagina? Horiek dira irakurleari sortzen zaizkion galderak liburua irakurri ahala. 18 narrazio laburretan argituko ditu Linazasorok zalantza horiek guztiak.

Jende gaizto asko dago munduan?

Baietz uste dut. Ikusi besterik ez dago telebista. Denok daukagu barruan min egiteko bulkada edo sena. Kon-

trolatzen jakin behar da, hortxe dago gakoa. Baina denok gara min emateko kapaz.

Gaizkia ederra dela dio protagonistetako batek, erakargarria, mendekotasun sortzailea, baina inor ez da onik ateratzen?

Nik uste horrela dela, gaizkiak, liburuan planteatzen den bezala, ez dakar ezer onik. Denok gai gara zerbait gaiztoa, txarra, mingarria egiteko. Baina horretarako daukagu garuna eta kontzientzia eta gisa-legea ere badago. Geure buruari askotan eutsi egin behar izaten diogu. Baina askotan gain egiten digu, burua joan egiten zaigu.

Denak gara oso normalak, normal izateari uzten diogun arte. Beti liluratu izan nau gai honek. Zergatik une jakin batean denak gai gara ez-egiteko bat egiteko?

Batzuetan askatzailea izan daiteke?

Bai. Liburuan gai asko planteatzen dira eta gaizkia egiteko modu asko. Batzuetan gaizkia ez da gaizkia

ere izango. Adibidez, ama hilzorian dagoenean eta eutanasia eskatzen duenean, semeak hiltzen laguntzen dionean, etengabeko eskaerari erantzunez, hori ez da gaizkia. Lege ikuspuntutik, onartua ez egoteak badauka bere zama, baina maitasun ekintza bat bezala ulertu behar da.

Beldurra al da honelako egoeren motorra?

Bai. Beldurra izan daiteke astakeria bat egin behar duzunean aurretik sentitzen dena, edo beldurra senti daiteke gero, astakeria egin ondoren. Orduan, benetako beldurra sentituko da. Batzuek beldur hori onartuko dute eta nolabait egingo lukete berriz egin duten gaizkia edo astakeria. Beste batzuk berriz damutu egiten dira egindakoaz eta damu hori seguru asko ez da sekula sendatzen eta geldituko da euren barruan.

Liburuaren izenburuan islatzen da hori: ‘Hik ez dakik zer den beldurra’. Nondik esaten diozu irakurleari?

Liburuan, ipuinetan ez dago zehaztasun handirik. Oso laburrak dira eta apaingarririk gabe kontatu dut. Oso ipuin biluziak dira, horniduratan galdu gabe mezuari garrantzia eman nahi izan dut. Esan gabe, iradokitzen da, protagonista bat badagoela, liburuzaina izan daiteke, kartzelan edo leku itxi batean eta protagonista guztiek kontatzen diote zergatik dauden dauden tokian. Horregatik, *Hik ez dakik zer den beldurra*. Esaldi hori liburu-zainari zuzenduta dago, entzuleari. Entzule hori liburuzaina da, baina estrapolatuz, irakurlea ere bada. Benetan irakurleari esaten zaio: *Hik ez dakik zer den beldurra*.

Nire asmoa irakurlea ispiluaren aurrean jarri eta halako egoera batean, normalean egoera muturrekoak eta zailak izanik, zer egingo genukeen hausnartzea. Irakurleari hausnarketa bat egiteko aukera ematen dio.

Ez dut epaitzen, planteatu baino ez dut egiten. Irakurleak berak egin beharko du bere lana. Bestearen larruan jarrita, gauzak oso ezberdin ikusten dira.

Mundu guztia heriotza-zigorraren kontra dago, hitzez behintzat, baina tokatuko balitzaigu psikopata batek alaba hil duela, orduan berdin pentsatuko genuke edo ez genuke berdin pentsatuko? Xenofobiarekin berdin. Hemen inor ez da xenofoba edo arrazista baina ipuin batean planteatzen da, kanpotik datorren



‘HIK EZ DAKIK ZER DEN BELDURRA’

EREIN ARGITALETXEA
Narratiba saileko 122a.
104 orrialde.
Paper-azal koadernaketa.
2019.11.06 argitalpen data.

jende hori ez bada gurekin ondo portatzen, ez bada integratzen eta bizitza izorratzen badigu orduan bagara xenofoboak edo ez gara xenofoboak?

Irakurlea egoera ezerosoetan jarri dut; bestearen larruan, gauzak beste ikuspuntu batetik ikusteko.

Narrazio bakoitzak irakurlearengan zalantza pizten du.

Hori da, bestearen larruan jarri eta gauzak beste era batera ikusten dira. Hain modan dagoen enpatia hori. Hitzez denak gara oso enpatikoak, inor ez da arrazista, inor ez dago heriotza-zigorraren alde... Baina egoera konkretu batzuetan... Esaterako, bortxatua izan den pertsona bat, gero berak zergatik egiten du berari egin dioten min hori? Horrelako galderak. Galdera asko. Bakoitzak jakin beharko du nondik jo. Situazio konprometituak dira eta horixe izan da nire asmoa gainera.

Narrazio bakoitza geruza diferentean kokatu duzu.

Protagonista entzule fina da eta liburuzainak entzule finak izaten gara. Berari eskatzen dizkiote liburuak, berak erakusten dizkie filosofia eta literatura, bera pertsona jantzia da, beti entzuteko prest, laguntzeko prest, pazientea... Berari kontatzen dizkiote bere minak, bere oinazeak, bere zorigaitzak.

Hitanoa erabili duzu horretarako.

Gertutasuna islatzeko. Biak ezagunak dira, biak leku itxi batean daude. Gizasemeak dira normalean, emakume-

ren bat ere badago. Gertutasunaz gain beste puntu bat ematen dio. Ez da asko erabiltzen hitanoa. Puntu exotiko hori ematen dio. Eta gertutasuna batez ere.

Labur, zehatz aritu zara. Zure ohiko estiloan.

Bai, horretan ahalegindu naiz. Ipuin hauek errealistak dira, egunerokotasunetik ez dabiltza urruti. Nire mundutik aparte ibili naiz. Gehiago jorratu izan dut, eta gusturago sentitu izan naiz alderdi fantastikoan eta umorearekin eta ironiarekin jolastuz. Hemen horrelakorik ez dago. Ez ironia, ez umorerik... Errealismora hurbiltzerakoan toke pertsonal bat ematen ahalegindu naiz. Horregatik daude poemak eta testuak nahastuta. Bata bestearen lagungarri dira. Poemak fondoko musika bezalakoak dira. Testuari uztartuak, ondo laguntzen dute hausnarketarako. Saiatu naiz gauzak labur eta biluzik egiten. Sintaxia oso bihurritua dago, hiperbaton eta esajerazio asko dago, errepikapen asko dago, ez dago puntuaziorik. Honek izugarritzko indarra ematen dio testuari.

Sintaxi era honek normalean irakurketa zailtzen du, baina ez dut uste kasu honetan ipuinak irakurtzeko zailak direnik. Zaila izango da bukatu eta hausnarketa bat egitea. Baina ipuinak erraz irakurtzen dira, nahiz eta puntuaziorik gabe, errepikapen asko eta poemak tartean egon. Liburu honetan nire kezka gauzak labur, biluzik eta hornidurarik gabe, deskripziorik gabe kontatzea izan da. Bukaerak prebisibleak dira, ez nuen ipuina sorpresa batekin bukatu nahi. Beste ipuin modu batzuetarako balio du. Bukaera ez da bereziki garrantzirik gehien duen alderdia ipuin hauetan.

Estiloak zailtzen al du idazketa?

Idea garbi nuen. Hemezortzi ipuin dira eta banaka-banaka eginda ez da oso lan nekagarria izan. Batzuetan ipuina idatzi dut aurretik eta ondoren poema gehitu diot. Beste batzuetan kontrara izan da, poema batetik ipuina atera da. Normalean abiapuntua poemak dira, laguntzen dute eta ematen diote indar filosofiko edo literario edo etiko bat testuari, lagungarri dira.

Denbora asko behar izan duzu?

Ez naiz oroitzen. Beti egiten dudana bezala, tarteka

bestelakoak idazten ditut, poemak, aforismoak, ipuin hiper-laburrak. Normalean liburu bat, bi edo hiru eserialditan egiten dut. Ez dut dena segidan bukatzen. Bospasei ipuin idatzi eta handik pixka batera berriz ere hartu eta bitartean beste gauza batzuk idazten ditut. Generoak tartekatu egiten ditut. Aspertu egiten naiz segituan beti gauza berarekin jardunda. Gustatzen zait hilabete pare bat hartu aforismoak edo haikuak idazteko. Eta ondoren berrir bueltatzen naiz liburura, freskoago nolabait esateko. Ezin dut esan zenbat denbora pasa dudana idazten.

Gai zailak jorratu dituzu eta pertsonaiak gertukoak.

Ez dut oso urrutira begiratu behar izan. Batzuk benetakot gertakizunetan oinarriturik daude. Ez dut asko arakatu behar izan hemezortzi ipuin hauetarako. Hausnarketa bat egiteko nahikoa material badago. Ez nuen asko luzatu nahi, azkenean errepikatze arriskua ere badago. Ikusten nuen ipuinak laburrak eta ipuin-liburua laburra izan behar zuela. Txantxa gutxi dago liburuan. Ipuin bakoitza oso zaindua dago.

Orain zertan zabilta?

Lanak tartekatzen [barreak]. Poema liburu bat bukatu berri dut eta horren erantzunaren zain. Laster aforismo liburu bat aterako da gazteleraz itzulia, euskaraz egina dago, baina sorpresaz erdaraz kaleratuko dute euskaraz baino lehen. Euskaraz zoritxarrez ez dut argitalexterik aurkitu, ez zaio inori interesatu. Aforismoen munduak erdaraz izugarritzko indarra du orain, puripurian dago, eta erdarazkoa oso gustura aterako dute. Euskarazkoa orde saiatu naiz batean eta bestean, inork ez du nahi izan. Niretzat tristea da, erdarazkoak interes handiagoa erakustea, euskaraz, euskal literaturak baino. Penagarria da, tristea da. Ez dago ohiturarik, ez dago tradizioz aforismoak irakurtzeko, baina ez badira argitaratzen, ez badira idazten, ez badira irakurtzen, sekula ez dugu horma hori gaindituko.

Batzuk ezta irakurri ere. Nobelaren tiraniaren munduan gaude eta horrelakoak ez dira aintzat hartzen. Euskaraz idatzi dut, eta tristea iruditzen zait euskal irakurlea libururik gabe gelditzea. Horrela daude gauzak.



ARTELANA, TXONDORGILEARENA

Joxe Aierbe eta Gregorio Iruretagoiena alkizarrak txondorgileak izan ziren gazte garaian. 60 urte atzera egin behar dira Alkizan txondorrak ikusteko; lanbide zaharra oroitzuz omenaldia egingo zaie aurrerago.

Eneritz Maiz Etxarri

Ez dira urte asko pasa ikatzak balio handia zuenetik. Txiki-txikitatik ikasi zuten txondorgilearen lanbidea Joxe Aierbe (Alkiza, 1929) eta Gregorio Iruretagoiinak (Alkiza, 1933), baina hirurogei bat urte atzera egin behar dira txondor garaiez hitz egiteko. Harrez gero, ez da txondor asko piztu Alkiza inguruan.

«Ni oso gazte hasi nintzen. Bederatzi-hamar urterako, bakar-bakarrik egona naiz txondorra zaintzen», gogora ekartzen du Aierbek. Txabola behar zuen nahi eta nahiez ondoan: «Lo egiteko, jateko,... beharrezkoa genuen txabola», kontatu du Iruretagoiinak. Aitek zituzten txondorgileak, eta beraiek irakatsi zieten lanbidea.

«Erretzen baduzu, bukatu egiten da egur pila. Txondorrak egosi egin behar du», dio Iruretagoiinak behin eta berriz. Hori da sekretuetako bat behintzat

txondorgileentzat, bestela, hautsa geldituko litzateke, egurra erreta.

Urteetan gauzak asko aldatu direla diote, eta diferentzia «ikaragarria» sumatzen dute biek ala biek: «Gu umeak ginenean, txekorrek oinez joan behar izaten genuen Tolosako hiltegira, eta Anoetatik hasi, eta Tolosaraino zer-nolako soroak ziren! Zer arbi, arto eta gari soroak! Orain denak tailerrekin daude», azpimarratzen du diferentzia hori nabarmenduz gazteenak.

Hautzaro garaian Alkizan txondor asko egiten zirela gogoan dute. Ia baserri bakoitzak izaten zuen berea: «Etxe gutxi izango ziren txondorrik egiten ez zutenak». Udaberri garaia izaten zen txondorrak egiteko sasoi ona, eta «dozena bat txondor batera egoten ziren», dio Iruretagoiinak. Hamazazpi kontatuak ere badituzte.



«Neguan preparatu behar izaten ziren txondorrak, baina egosi udaberrian», azaldu dute. Martxoa edo apirila aldera, artoa egin aurretik, pizten zituzten txondorrak. Ikazkinaren nolakotasunak baldintzatzen zuen txondorra, eta nolako egurra eta nolako txondorraren arabera, egun gehiago edo egun gutxiago egoten ziren txondorrak piztuta: «Batzuk zortzi egunean egingo zuten, eta beste batzuek hamabost egunean».

Nolako egurra halako ezpala, dio esaera zaharrak, eta egur ikatza ateratzeko ere, «nolako egurra den, eta enborrekin egina edo adar hutsekin egina den alde ikaragarria dago», azaldu du Aierbek. Eta Iruretagoienak jarraitzen du, «pago enborra edo adarra izan aldea dago. Pago bati adar bat edo bi inausten zizkioten, besteari bi edo hiru, eta horrela kentzen zizkioten pagoari adarrak. Egur horiekin lehenago egosten zuten». Etxe askotan omen ziren txondor-zuloak, eta udazkenean, etxearen inguruan piztu ohi zituzten txondorrak.

OHARRA: BERTAN BEHERA

Herriko txondorgileei bihar omenaldia egitekoak ziren Alkizan, baina jakina den moduan, Koronabirusa dela eta, bertan behera geratu dira ekitaldiak.

Asteklimaren –Euskadiko Klima Al-daketaren Astea– barruko ekimena zen, eta Udalsarea 2030 udalen sarean sartuta dauden udalek ekitaldi guztiak bertan behera utzi dituzte.

Plazatik abiatuta, ibilbide gidatua egin nahi zuten zuhaitz lepatuak bisitatuz, eta jarraian, herriko txondorgileekin solasaldia eta omenaldia.

Bertan behera utzi duten arren, aurrerago egingo dute, eta jakinaraziko dute.

«Erremedioz behar zituzten», ekartzten du gogora Aierbek.

Hogei-hogeita hamar urteren bueltan utzi zioten ikatza egiteari. Aierbek dio: «Hemen, ikatza, butanoa sartu zen garaian bukatu zen». «Kalean lehen, denek, egurra eta ikatzarekin egiten zuten sua. Ez zegoen butano edota gasik».

Esaterako, Iruretagoienak gogoran du Tolosara astero ikatza nola eramaten zuten: «Petra gozogileari, asteen bi edo hiru aldiz eramaten zioten ikatza». Dirua zuenak ikatza erosten zuela diote: «Kerik ez du ikatzak, eta egurrak bai».

Saltzeko egiten zuten ikatza, eta eskuan dirua izateko. Etxean oso

gutxi erabiltzen zuten. «Etxean, ekonomikan, egurra-ekin egiten zen sua, eta ikatza Tolosarako izaten zen», diote. Orain adina gauza ez zituzten erosten lehen, baina etxera zerbait erosita eramango bazuten, dirua behar; horretarako ikatza saldu behar izaten zuten. Gurdirik ez, eta zaldian kargatuta eramaten zi-

tuzten bederatzi-hamar kilo-ko zakuak.

Lan oso gogortzat dute ikazkinarena: «Gauean ere beti alertan egon behar izaten zenuen. Lan pisua zen eta arriskutsua ere bai». Galdutakoak ere badituzte. «Behin hanka sartu eta atera ezinik geratuz gero, bakarrik zaila izaten zen ihes egitea».

Txondorraren magia

Txondor-zuloa garbitu eta prestatu behar izaten zuten lehenengo, eta nibelean jarri.

Neguan egurrak prestatzen zituzten. Egurra ekarri, moztu eta txondorra egiten zuten. «Jaio ordurako mendian ibiltzen ziren, eta haiek bazekiten nola egin behar ziren», gogoratzen du Aierbek. «Gero egurra-ekin kargatu esaten zuten, eta orbela botatzen zioten. Bustia nahiago lehorra baino, eta dena lurrez tapatzen zuten, bestela sua kanpora ateratzen zitzaion txondorrari eta erretzera zihoan txondorra».

Poliki-poliki egurra egosten mantendu behar izaten zuten, eta gau eta egun, norbait zaintzan egon behar izaten zuen. «Ez zegoen beste erremediorik», adierazi du Aierbek, eta gaineratzen du, «lehenengo egunetan ematen zuen lanik gehiena. Berriz ere egurra prestatu behar izaten zen, betegarria; eta lana ematen zuen».

«Txondorrek zuloa izaten zuen erdian, goitik behe-
ra sua lanean hasten zenean, txondorra egostean, muturra jaitsi egiten zitzaion, eta egur motzak eduki-
tzen zituzten prest. Ireki muturra, eta egur motzak
sartu, eta berriz ere muturra egiten zioten, eta itxi
egiten zuten».

Eskailera behar izaten zuela txondorrek diote, eta Aierbek kontatzen du: «Eskailera bakarrik ez gainera. Beste bat izaten zen sataga esaten zitzaiona, luzea. Betegarria botatzerako garaian, estuasunak ematen zituen keak. Ito egin behar, eta norabait saltatu egin behar izaten zen».

Joxe Aierbe

**«Hemen, ikatza,
butanoa sartu
zen garaian
bukatu zen»**



UNAI SORARRAIN

Mutil kozkor arinak izanagatik, alde batera edo bestera salto egin behar izaten zutela diote. Zaintza lanak tarteko, jatekoa ere bertara eraman behar izaten zuten. «Gu oso goian aritzen ginen, eta bertan egiten genuen jatekoa», esan du Aierbek. Txondorra egosten zegoen garaian, gehienetan, txabolan pertsona bakarra egoten zela diote. Urtean txondor bat edo bi seguruak izaten zituzten. «Urte askoan ezagutu nuen gure aita zena mendian bi txondor egiten. Eta etxe ondoan udazkenean, bestea. Bakarra egiten zutenak ere izaten ziren», dio Iruretagoienak.

Txondorraren arabera jasotzen zituzten ikatz kiloak. Batzuk txikiagoak eta besteak handiagoak egiten zituzten. «Zenbat egur jartzen zenuen, horrenbeste ikatz jasotzen zenuen». Eskari handia zegoela kontatzen dute, «bestela ez zuten egingo». «Errementariak ia herri guztietan izango ziren, eta haiek ere ikatza behar izaten zuten».

Artelana ote den aipatuta, aho batez, baiezkoa adierazi dute: «Edozeinek txondorra egin behar duela esan, eta ez du egingo», nabarmendu du Joxe Aierbek. Eta Iruretagoienak gaineratzen du, «Txondorraren berririk ez duenak, ezin du hasi egiten». Egurrak jartzean dago artea, baina baita sua ematean ere, eta nola ez, baita egurra egosten mantentzean ere. Jakin gabe txondorrari su emanez gero, «ikatz zuria» aterako litzakeela kontatu dute. Eta



anekdota ezberdinak ere badituzte kontatzeko: «Bi gazte joan ziren txondorra egitera mendira, eta txondor-zulo txiki samarra egin zioten, eta azpiko aldea hazi egin omen zitzairen. Lurra botata jarri izan behar zuten, baina ez ondo egin. Gero azpitik airea hartu, eta beraiek jakin ez zein akats zuen txondorrak. Segituan dena sutan». Zer gertatu zitzairen tankerarik ere ez omen zioten eman. «Erretako txondorretik, ez dago ikatza ateratzerik», azaltzen du Aierbek.

Lehengaia, egurra

Egurra pagomugarroak «altura batetik moztutako pagoak izaten ziren», dio Aierbek. «Hemen oraindik dezente dago pago mugarroa», gehitzen du Iruretagoienak, baina «zahartuta» daude, eta handiegiak egin direla dio. Eta Aierbek jarraitzen du, «nahi adina ez zitzairen haziko, baina bakoitzari adarren bat edo

Ikiliko Txondorra

Alkizan aspaldiko ohiturak edo lanbideak berreskuratu nahi izan zituzten, eta 2010ean, ikazkinak eta txondorrak izan ziren protagonista. Emaitzeko bat *Ikiliko Txondorra* liburua izan zen. Bertan, txondorra nola egiten den ikusi daiteke Xabier Artola Zubillaga herritarak ateratako argazki desberdinen bidez.

beste kendu eta... horrela osatzen zen egurra». Zuhaitz asko behar zituzten. «Orain adarrak kenduz gero, ez lukete pujarik emango. Orduan berriagoak nola moztzen baitziren, ondotik beste puja bat ematen zuten», azaldu du Iruretagoienak.

Basoa izugarri aldatu dela diote, eta 40 urte baino gehiagoan ez dela egurrik atera, eta jaiotzen den guztia luzea dela kontatzen dute. «Orain inork ez du mugarratzen».

Hogeita hamar urteren bueltan egin zuten azken txondorra, eta txondorgileen lana ia beraiekin batera bukatu zen Alkizan. Penaz begiratzen diote baserri munduari, eta urtez urte baserriak izan duen bilakae-rari. Eta orokorrean, gizarteak izan duen aldaketari sinetsi ezinik begiratzen diote: «Ikaragarri aldatu da, ez pentsatu brometan aldatu denik», gaineratzen du.

Txondorgilearen lana oroitzuz, omenaldia egingo diete herrian eta herritarrek, baina ez diote berebiziko garrantzirik ematen horri.

Urteak bizkar gainean izanagatik sasoiko daude Aierbe eta Iruretagoiena. Ez dira etxean geldirik geratzen, eta eguraldi ona bada behintzat, baserrian ez da lanik bukatzen eta horretan aritzen dira; bide bazterrak garbitzen ez bada, baratzean lanean. Irribarre artean diote: «Lau pareten artean baino hobeto gaude kanpoan».



UNAI SORARRAIN

**«Erretzen baduzu
bukatu egiten da
egur pila.
Txondorrak egosi
egin behar du»**

**Gregorio
Iruretagoiena**



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Antzeko giroa.

Zeruan hodei gutxi ikusiko dugu egunaren lehenbiziko partean. Eguerditik aurrera bero-hodei batzuk garatuko dira, batez ere, mendirik altuenen inguruan. Hala ere, ekaitzetarako joera txikia denez, apenas egingo duen euririk. Haizeak hego-ekialdetik joko du, tarteka bizi eta tenperatura balio altuenak pare bat gradu jaitsiko dira, eguneko erdiko orduetan 17-19 gradutan goia joz.

LARUNBATA

Giro lasaia. Hego-haizearen eraginpean jarraituko dugu eta horrekin tenperaturak epelak izaten jarraituko dute, non balio altuenek berriz ere 17-19 gradutan joko duten goia eguneko erdiko orduetan. Zeruan aurreko egunetan baino hodei gehiago agertu arren, giroa argia izango da eta, nahiz eta, arratsalde-iluntzean bero-hodeiren bat garatu, ateri eutsiko dio.

IGANDEA

Giroa nahastu egingo da. Nahiz goizean hego-haizearekin giro lasaia izan, eguerditik aurrera ipar-mendebaldeko haizea nagusituko da eta giroa zertxobait nahastuko da. Zeruan hodeiak nagusituko dira eta hodei hauek euri pixka bat ere utziko digute. Euria hegoetik sartuko denez ez du zaparrada handirik botako, baina zer edo zer bustiko duenez, arratsaldea ezatseginagoa geratuko da. Termometroak beherago kokatuko dira eta tenperatura balio altuenak ez dira 15-17 gradutik pasako.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Ongi etorri nire
errepublikara

ZORIONAK

Zure errepublikan kontuak hobeto al daude? Hamaiketako ez dugu ahaztuko, horretarako tartea ere izango da!! Seguru baietz!!

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

MARTXOAK 20, OSTIRALA
TOLOSA

Egunekoa. Inazio Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

MARTXOAK 21, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea
Aiestaran. Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.

MARTXOAK 22, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Marta Olarreaga Aranburu.
Martin J. Iraola etorbidea, 10.
943 67 24 38.

MARTXOAK 23, ASTELEHENA
IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24.
943 67 32 74.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.**

LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.

HEMEN ZURE IRAGARKIA JOAN DAITEKE

publi@ataria.eus
661 678 818




Mozorro

hoberenaren bila



ALDEKOA

Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
Jakuztidun logela eta gosariekin
Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia



R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Lau pertsonarentzako otordu bat
Zabala sagardotegian
Goiburu auzoa, Aduna
• 943 69 07 74 • rzabala.com
ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria




LURLAN
BISTROT

Bi lagunentzako bi afari
Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
• 943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atarikideen saria



Mondragon
Unibertsitatea

Goi Eskola
Politeknikoa



Goierriko Campusa

ORDIZIA

**MEKANIKAKO
INGENIARITZA**
GRADU DUALA

**Eman
izena**



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)

TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM



**XVIII SAGARDO TXAPELKETA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA SARIAK**

2019 IRABAZLEA